

2020ko uztaila. EH Bildu, gehien hazi den indarra: 248.000 boto; 22 ordezkari

Pandemiak sortutako egoera egokiena izan ez arren, igandean emaitza ikusgarriak lortu zituen EH Bilduk, eta zalantzarak gabe gehien hazi den indarra izan da. **Abstentzioak gora egin du, eta logikoena zen aurrekoan baino boto zeozer gutxiago lortzea, baina EH Bilduk gora egin du:** 225.000 boto 2016an eta 23.000 boto gehiago orain. Igoera hiru herrialdeetan izan da, eta ordezkaritan gehien hazi den indarra izan da, 18tik 22ra.

Bizkaian emaitza bereziki onak lortu dira: **112.000 boto**, orain lau urte baino 12.000 boto gehiago. Orduan ozta-ozta lortu zen 5. ordezkaria, eta berdin lortuko zuela iragartzen zuten inkestek, baina 7ra heldu da, aldaketarik handiena emaitzetan: %28ak EH Bilduri ematen dio bota Bizkaian

Zeberioko datuak pozteko modukoak dira EH Bildurentzat: abstentzioa handitu arren, hazi egin da eta: **262 herritarrek eman diogu gure babesea EH Bilduri**. Abstentzioa hazi egin da: 3tik bat ez da joan bota ematera. Aurrekoekaz konparatuta, jaitsi egin da EAJ-PNV eta gure arteko diferentzia, eta oro har, PNVk beherantzako joera jarraitzen du: oraingoan ez da heldu 300 botora. Podemosek ere beherantzako joera hori jarraitzen du.

Portzentualki **ia hirutik batek bota ematen diogu EH Bilduri Zeberion**, bestelako Euskal Herria eta bestelako herri bat gura dugulako. Orain egin dugun esfortzuak sari ederra ekarri du, eta hauteskunde hauetan ipini dugun ilusioak datozen urteotan aurrera egiteko balio behar du: bai hauteskundeetan gora egiteko, bai udalean gehiengo bihurtzeko, eta baita herri modura antolatzen ari diren eta sortuko diren ekimen berrietan bultzatzeko eta parte hartzeko. Aurrera goaz.

| | 2009 | 2012 | 2016 | 2019abendua Orokorra | 2020 |
|------------------------|----------------|-------|-------|-------------------------|--------------|
| errolda | 864 | 882 | 879 | 874 | 875 |
| abstentzioa | 236 | 214 | 234 | 207 | 271 |
| | %27,3 | %24,2 | %26,6 | %23,6 | %30,9 |
| EAJ | 379 | 354 | 323 | 325 | 298 |
| EH BILDU | (140) | 273 | 243 | 231 | 262 |
| EA | 42 | | | | |
| Aralar | 9 | | | | |
| Podemos | | | 57 | 73 | 13 |
| EB | 10 | 5 | | | |
| PSOE | 29 | 16 | 4 | 18 | 8 |
| PP + Ciudadanos | 7 | 4 | 5 | 7 | 6 |
| Equo | | | | | 4 |
| Vox | | | | 3 | 2 |
| Recortes O | | | | | 1 |
| Beste batzuk | 7 | 9 | 8 | 3 | |
| zuriak | 5 | 3 | 3 | 7 | 7 |
| Baliogabeak | 140 (Batasuna) | 4 | 2 | 5 | 3 |

EH Bildu consigue 248.000 votos en estas elecciones, 23.000 más que en 2016, a pesar de que la abstención ha crecido, y lo lógico hubiera sido no obtener más votos. Ha sido la fuerza que más ha crecido desde las elecciones anteriores, y ha pasado de tener 18 representantes a contar con 22. Sube en los tres herrialdes.

En **Bizkaia** es donde se registra el aumento más llamativo. **Alcanza 112.000 votos**, y si hace cuatro años consiguió muy ajustadamente 5 representantes, ahora pasa a 7.

En **Zeberio** los datos son muy alentadores para EH Bildu. La abstención ha subido un 4%, y lo lógico hubiera sido perder votos en esa proporción (tal como pasa con el PNV), pero EH Bildu obtiene incluso más votos, 19.

Casi uno de cada tres votos en Zeberio es para EH Bildu, para los y las que queremos una Euskal Herria diferente y un Zeberio diferente. El esfuerzo y la ilusión que hemos puesto en estas elecciones nos ha traído su recompensa, y tiene que servir para que sigamos en esa dirección: subiendo en las elecciones, alcanzando la mayoría en el ayuntamiento, y apoyando y participando en las diversas iniciativas populares que están surgiendo en estos últimos tiempos. Aurrera goaz.